



<b>Izenburua</b>	Gurasoak ikastolaren norabide berean: Karmelo Ikastolako esperientzia
<b>Egilea</b>	Karmele Aurrekoetxea eta Iñaki Eizmendi
<b>Data</b>	2009/03/13

---

## aurkibidea

---

<b>aurkibidea.....</b>	<b>2</b>
<b>1. Kokatzea.....</b>	<b>4</b>
1. Karmelo Ikastolaren historia.....	4
2. Testuingurua.....	5
<b>3. Karmelo Ikastolako planaren ezaugarriak.....</b>	<b>7</b>
1. Norabidea argi edukitzea.....	7
2. Ikastolaren eta irakasleon zeregina al da familietan eragitea?.....	8
3. Lehenengo pausoak: Mezuak, kezkak eta tresnak aztertzea.....	9
4. Haurren adinaren arabera plana zehaztea.....	14
5. Adibidea: 2009-2010 ikasturterako 2 eta 3 urteko haurren gurasoentzat plan zehatza.....	16
6. Frogatzea eta egokitzea.....	19
<b>4. Ondorioak.....</b>	<b>20</b>
<b>5. Eranskinak: Esku-orri adibidea.....</b>	<b>21</b>
<b>Zergatik proposatzen dizuegu jolas hau?.....</b>	<b>22</b>
<b>¿Por qué os proponemos este juego?.....</b>	<b>22</b>

<b>Jolasaren oinarriak.....</b>	<b>23</b>
<b>Bases del juego.....</b>	<b>23</b>
<b>Si no sabéis euskera o sabéis muy poco.....</b>	<b>24</b>
<b>Si uno de vosotros sabe euskera y el otro no.....</b>	<b>24</b>

## 1. Kokatzea

---

### 1. Karmelo Ikastolaren historia

Karmelo Ikastola 1965 urtean Bilboko Santutxu auzoan guraso talde txiki batek sortu zuen, EUSKARA ERREKUPERATU eta beraien seme-alabak eta auzoko umeak EUSKALDUNDU eta EUSKAL KULTURAN hezteko helburuarekin.

Gure hizkuntzarentzat une latzak ziren; hasieran auzoko Karmeldarren babesa izan zuen, Karmelo elizaren egoitzan kokatu zelarik. Hortik datorkio bere izena.

Ondoren guraso baten izenean legeztatu eta hainbat kokapen desberdin ( pisu, lonja,..) izan ostean, gaur egungo lokaletara etorri ginen 1977. urtean (urte horretan ikastola bitan banatu zen, batek Karmelo izenarekin jarraitu zuen eta beste erdiak Kirikiño izena hartuaz beste ikastola bat egin zuen).

Egoera juridikoari dagokionean, guraso baten izenean sortu eta geroago Irakaskuntza kooperatiba baten moduan jardun zuen, 1993an Euskal Estola Publikoaren Legearekin sare publikoan sartu zelarik.

44 urte ditu eta oraindik ere nahiz eta euskalduntzen egin duen ekarpena ikaragarria izan, lokal duin batzuen faltan dago.

Egindako ibilbide luze honetan, guraso zein irakasleriak, **euskalduntze prozesuaren nondik- norakoak oso argi** izan ditu eta horrelako proiektu bat aurrera ateratzeko oso **jarrera konprometitua**.

Etengabeko lan horri esker, gaur egun ere, sorreratik izan duen helburua mantentzen du eta horrela definitzen dugu gure helburua hizkuntzari dagokionean: IKASLE EUSKALDUN ELEANITZAK egitea.

Karmelo Ikastola, **ikastetxe euskalduna da**.Euskaraz bizitzea da gure identitate ikurra eta gure helburua guztion artean euskara benetako komunikazio hizkuntza izan dadila.

## 2. Testuingurua

Santutxu auzoa, gaur egun ere nahiko erdalduna dela esan dezakegu, baina gure ikastolara hurbiltzen den kolektiboa ikusirik, orain 50 urte baino euskaldun gehiago dagoela argi dago. Orain 40 urte gure ikastolara hurbiltzen zirenetatik %3a zen euskalduna etxetik; gaur egun, %50a ia euskalduna edo euskalduna da.

Elkarren ondoan ez dauden ( kale desberdinetan) bi egoitzetan gaude banaturik: 2 eta 3 urtekoak baten eta 4tik 12ra beste baten.

Ikasturte honetan , 406 ikasle ditugu. Irakasleak 35 gara , 21 behin-betikoak, eta gainontzekoak urtero aldatzen direnak eta gure proiektura atxikitu beharrekoak.

Ikasleriari dagokionez, etorkin gutxi daukagu eta aldiz, beste ikastetxe batzuekin konparatuz adopzioko nahiko ume.

1993, urtean publikazioarekin batera, hezkuntza erreforma ere ezarri zen eta 12 urtera bitarteko umeekin geratu ginen. Aldaketa honek hizkuntzaren erabileran eragin zuzena izan zuen; ordura arte tradizioz ikasleen artean erdara egiteko ohitura azken urteetan( 12-14) ematen zen. DBHren hasierarekin, adin tarte jaitsi eta erdarara jotzeko joera arinago hasten da.

Karmelo Ikastolan hizkuntza proiektu argia daukagu eta familiek ikastolan izena ematen duten lehen momentutik dakite, euskara, irakaskuntzarako hizkuntzaz gain, benetako komunikaziorako daukagun hizkuntza dela eta familietara eta kalera ere zabaldu nahi dugula euskaraz bizitzeko ohitura.

Haurren hizkuntzan, hizkuntza irakastea eta hizkuntza ohiturak lantzeari beti eman diogu **garrantzi handia**.

Hasieratik taldekatze desberdinak egiten dira ama hizkuntzaren arabera, eta lehen hezkuntzako 3. mailararte ez dira talde-gela nahastatzen Erabaki hau, bigarren hizkuntzaren ikaste prozesuaren azterketa eta hausnarketa sakon baten ondorioz hartu dugu.

Betidanik, Normalkuntza Planak abian jarri aurretik ere, ikastolan egin izan ditugu bizkortze eta mantentze kanpainak.

Haur hezkuntzan, hizkuntza arloan egiten den lanak, beste zikloetan jarraipena izatea derrigorrezkoa da, adin tarte horretan ikasten den hizkuntza eta lortzen diren ohitura eta jarrerai aurrerantzean eusten ez bazaie, hasitako ibilbidea hautsi egiten da eta.

Hainbat eragile desberdin direla eta azken urteetan, umeen artean euskararen erabilera motibatzeke zailtasun handiagoak aurkitu ditugu.

Familia gehienek euskalduntzearen ardura ikastolaren esku uzten dute (lehen ez bezala) eta gehiago kostatzen zaie konprometitzea.

Gaur egun jolastokian lehen baino guraso gehiago geratzen da umeak irteten direnean hauek libre jolas dezaten, ondorioz jolastokia (4:30etatik aurrera) erdaldundu egin da; ikastolako familiek eta umeek Santutxun euskaraz aritzeko eta jolasteko lekua, ikastolako espazio babestuan, erdara hedatzen joan da. Jolastokia erdalduntzeak erdara beste esparru batzuetara ere zabaltzea ekar dezake.

Gainera familietan euskararekiko jokaeratan aldaketa nabaritu dugu.

Urtero irakasle berri asko datorkigu eta nahiz eta ikastolako euskararen erabilera maila onaz harrituta geratu, zaila egiten zaigu transmititzea, lorpen hori ez dela **berezkoa**, atzean urteetako eta eguneroko lana dagoela eta etengabe jardun behar dugula **denok**, bestela ohitura berehala galtzen da eta.

Guzti honek eraman gaitu ikastola osoak hausnarketa bat egitera eta euskararen erabilera eragiteko estrategia berrien beharrez konturatzera.

Iñaki Eizmendiren laguntzaz adin desberdinei egokitutako planak eta programaketak egiten eta martxan jartzen hasi gara ilusio handiz eta gaur egun horretan dihardugu.

Jardunaldi hauetan Haur Hezkuntzako lehen urteetan, pentsatu ahala martxan jartzen ari garen esperientzia bat kontatuko dugu.

Ikastolara sartzen direnetik, familia bidezko euskararen transmisioaren garrantzia azpimarratu nahi dugu eta hezkuntzaren beste arlo guztietan bezala, ikastola eta gurasoak norabide berdinean jokatzearen garrantzia.

### **3. Karmelo Ikastolako planaren ezaugarriak**

---

#### **1. Norabidea argi edukitzea**

Karmelo Ikastolak bertako ikasleen euskararen ezagutzan, erabileran eta jarreretan eragin nahi du. Baina egiten duen lanak ez du ikastolara mugatu nahi, ikasleek ikastolatik kanpo hizkuntza-jokabide batzuk edukitzea ere nahi du.

Horri begira klaustro osoak formazio saioetan parte hartu zuen 2008an, Iñaki Eizmendik dinamizatutakoak. Formazio saio horietan honakoa zehaztu zen:

Norabidea: Baiezkoaren dinamikatik lan egitea.

Metodologia: Irakasle guztiek modu berean lan egitea ikasleen euskararen erabilera sustatzerakoan. Helburu, estrategia eta tresna zehatzak adostu ziren horretarako.

Horretaz gain, eta eragina handiagoa izatera begira, bi bide garatzea erabaki zen:

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako 1. zikloan: Familietan eragitea. Gurasoak ikastolaren norabide berean jartzeko helburuari heltzea.

Lehen hezkuntzako 2. eta 3. zikloetan: Ikasleen hizkuntza jarreretan eta jokabideetan eragiteko plan bat lantzea eta abian jartzea.

2008-2009 ikasturtean bi bide horiek garatzen eta frogatzen ari gara. Klaustro osoa ari da parte hartzen atal batean edo bestean. ebete hizkuntza-zerbitzuetako Iñaki Eizmendiren laguntza ere badugu zeregin horretan.

Ondorengo orrietan, familiengan eragiteko zehaztutakoak eta landutakoak aurkezten dira.

## 2. Ikastolaren eta irakasleon zeregina al da familietan eragitea?

Ikastolan lan handia egiten dugu euskararen ezagutza lantzen eta erabilera sustatzen. Argi daukagu, bestalde, gurasoek norabide berean lan egingo balute ahalegina askoz eraginkorragoa izango litzatekeela.

Guraso asko norabide berean ari direla nabarmena den moduan, beste hainbatek zeregin hori ikastolaren esku uzten duela ematen du:

Guraso euskaldun gehienek euskara transmititzen dute, baina haietako askok ez dute kontzienteki seme-alabekin euskararekiko jarrerarik eta jokabiderik lantzen.

Guraso erdaldun gehienek ikastolaren esku uzten dute erabat seme-alaben euskara ikaste prozesua, hau da, seme-alabak elebidun orekatuak izatera iritsi daitezen ardura osoa.

Hainbat gurasok horrela jokatzearen arrazoia zein izan daiteke? Seguruenik batzuen kasuan utzikeria izango da, baina askoren kasuan arrazoi nagusia gurasoek sustatu behar diren jarrerak eta jokabideak zeintzuk diren argi ez edukitzea ere izan daiteke, eta jarrera eta jokabide horiek sustatzeko tresna egokiak eskuartean ez izatea.

Beraz, gurasoei mezu egokiak, modu egokian eta tresna egokiekin eskainita, ikastolatik egiten dugun lana eraginkorragoa izango litzateke. Gurasoak irakasleen norabide berean aritzea irakasleon lanarentzat oso onuragarria da.

Eta hori eskolaren mugak zein diren kontuan hartu gabe:

Ezagutzan eta erabileran eragiterakoan eskolaren mugak argi daude: D ereduak urte osoko esna-orduen %15 eskaintzen die haurrei euskaraz.

Jarreretan eta jokabideetan familiaren eragina eskolarena baina handiagoa da.

Hori dela eta, familiengan eragiteko bideari heltzea erabaki zen. Ikastolaren eta irakasleon ezaugarrietara eta baliabideetara egokituko zen programa bat lantzea eta abian jartzea erabaki zen.



### **3. Lehenengo pausoak: Mezuak, kezak eta tresnak aztertzea.**

Zein dira elebitasunari buruz eta familia bidezko hizkuntza transmisioari buruz gurasoei eman nahi dizkiegun mezuak? Zein dira gurasoen kezak gai horien inguruan? Zein bide ditugu mezu horiek helarazteko? Zein tresna osagarri erabili ditzakegu? Zein tresna izan ditzakegu eskura gurasoei eskaintzeko guk proposatzen diegun norabidean aritzea errazagoa izan dadin? Galdera horiek erantzunez osatu da Karmelo Ikastolako plana.

#### Galdera horien guztien atzean ideia hauek daude:

Ikastolatik gurasoei mezu batzuk helarazi nahi dizkiegun ikastolaren norabide berean aritu daitezen.

Gurasoek gai horien inguruan kezka batzuk edukitzea ere oso normala da, kezka horiek erantzutea lehentasunezkoa izango da. Kezka horiek hor dauden bitartean, zaila izango da gurasoek bestelako jokabide batzuk hartzeko prestutasuna erakustea.

Mezuak emateko bideak eta erabili ditzakegun tresnak ondo aztertu eta prestatu beharko dira. Eskura ditugun baliabideak mugatuak dira eta ondo erabiltzea komeni da.

Egiten dizkiegun proposamenen arabera, gurasoei hainbat tresna jarri behar dizkiegu eskura. Hau da, euskararekiko jokabide aktiboak eskatzen badizkiegu, horretan lagundu behar diegu eta horretarako hainbat tresna jarri ditzakegu beraien eskura.

Idea horietatik abiatuz eta galdera horiek erantzunez, ikastolatik plan bat diseinatzeko urrats nagusienak eman ditugu.

### Zein dira guraso euskaldunen kezka nagusiak?\*

- Zer egin dezaket lagunartean gaztelaniarako joera hartu badute?
- Seme-alabei euskaraz egiten diegu baina gure artean gaztelaniaz egiteko ohitura dugu, zer eragin izan dezake horrek?
- Nik euskaraz dakit baina nire bikoteak ez, nola jokatu behar dugu seme-alabekin etxean?
- Anai-arreben artean gaztelaniarako joera hartu dute. Zer egin dezaket?
- Gero eta euskara nahasiagoa erabiltzen dute, batez ere lagunartean ari direnean, zer egin dezaket?
- Gaztelania ondo ikasiko al dute?
- Nik esandako gauza asko zuzendu egiten dizkit. Nola jokatu beharko nuke horren aurrean?
- Zerbait gaizki erabiltzen duenean zuzentzea egokia al da?
- Euskara eta gaztelania nahasten badituzte zer egin?

### Zein dira euskaraz ez dakiten gurasoen kezka nagusiak?\*

- Nola lagundu eskolako lanekin?
- Nola lagundu elebidun izan daitezen?
- Euskara pixka bat badakit baina ez ondo, erabili behar al nuke seme-alabekin?
- Ikasiko al dute ondo gaztelania?
- Ikasiko al dute ondo euskara?
- Zein dira elebitasunaren eta eleaniztasunaren abantailak eta desabantailak?
- Bigarren edo hirugarren hizkuntza bat ikasteak eragin negatiborik ba al du lehenengo hizkuntzaren garapenean?
- Eskolara hasten direnean, ordura arte gaztelania bakarrik jaso badute, ez al dute gaizki pasako dena euskaraz egiten bazaie?
- Euskara eta gaztelania nahasten badituzte zer egin?
- Egia al da eredu elebidunetan ikasten dutenek elebakarretan ikasten dutenek baino akats ortografiko gehiago egiten dituztela gaztelaniaz idazterakoan?

*\*Irakasleok jaso izan ditugun kezkak eta Iñaki Eizmendik " No sabemos euskera, cómo ayudar a nuestros hijos e hijas para que sean bilingües?" hitzaldietan jaso izan dituen kezkak dira ondorengoak.*

### Guraso euskaldunei eman nahi dizkiegun mezu nagusiak

- Elebitasuna eta eleaniztasuna onak dira. Euskara eta gaztelania ondo menderatzea ez da euskararen kalterako zerbait.
- Gure seme-alabak elebitasun orekatura iristeko baldintzak onak dira: etxetik euskara jasotzen dute eta eskolak ere nagusiki euskara eskaintzen die.
- Gauza bat da elebitasuna eta bestea hizkuntzarekiko jokabideak. Elebitasun orekatura iristeko baldintzak betetzeak ez ditu hizkuntza jokabide jakin batzuk ziurtatzen. Seme-alaben hizkuntza-jokabideak axola bazaizkigu, eragin beharko dugu.
- Ikastolan jokabide hauek landu nahi ditugu: Eguneroko harremanetan euskararen aldeko hautua egingo duten gazteak izatera iristea (ikastolan eta ikastolaz kanpo).
- Jokabide horietara iristeko:
  - Euskararekin harremanak handia eta positiboa izan behar dute.
  - Eredu egokiak behar dituzte: imitazioa da ikasteko modurik eraginkorrenetakoa.
  - Seme-alaben jokabideetan eragin gehien gurasook duzue. Baita hizkuntza jokabideei dagokionez ere.
  - Eredu egokiak izateko, euskararekiko aktiboak izan behar duzue. Euskara gero eta gehiago erabiltzeko jokabidea hartu behar duzue eta hori transmititzen ahalegindu. Hainbat bidetatik egin daiteke hori:
    - Etxetik: Etxeko barruko hizkuntza-jokabideak zainduz.
    - Etxetik: Ahalik eta hizkuntza aberatsena eskainiz.
    - Kaletik: Hainbat egoeretan jokabide egokiak transmitituz.
    - Kaletik: Lagunarteko harremanetan eragiten ahaleginduz.

### Euskaraz ez dakiten gurasoei eman nahi dizkiegun mezu nagusiak

- Elebitasun orekatua da helburua.
- Gaztelania ondo ikasiko dute.
- Euskara ondo ikasiko dute, baina erabili behar dute elebitasun orekatura iristeko.
- Eskolak bere lana egingo du, baina mugak hor daude.
- Guraso moduan, euskararekiko aktiboak izan:
  - Ahalik eta euskara gehien erabili.
  - Eskola orduz kanpoko jardueretan euskarazkoaren hautua egin.
  - Euskararekiko jarrera positiboak transmititu. Euskara jakin gabe ere egin daiteke hori.

### Mezu horiek emateko zein bide erabili ditzakegu?

- Gurasoekin zuzeneko harremanetan:

Ikastetxera matrikulatzeko informazio eske edo eta matrikulatzera datozenean.

Kurtsoka edo gelaka ikasturtean zehar egiten diren bileretan.

Haur bakoitzaren gurasoekin ikasturtean zehar egiten diren bileretan.

Gurasoekin harreman informaletan: haurren bila etortzean, jaialdietan...

- Bestelako euskarrietan mezuak txertatuz:

Hezkuntza proiektuan.

Gurasoentzako oharretan.

Ikasleen informeetan.

Ikastetxean jartzen diren karteletan.

Etxera bidaltzen diren esku-orrietan.

### Mezuak emateko zein tresna erabili ditzakegu? Zeintzuk ezagutzen ditugu?

- Haur elebidunen gurasoentzako eskuliburua (Alkarbide bilguneak argitaratua)

- Gurasoentzako hitzaldiak (ebete hizkuntza-zerbitzuek eskaintzen dituztenak)

- Etxetik hasten delako esku-orria (Buruntzaldeko udalak argitaratua)

- Zorionak! izeneko esku-orria (Debagoienako mankomunitateak argitaratua)

- Eskolako lanekin laguntzeko eskuliburua (Alkarbide bilguneak argitaratua)

...

Zein tresna eskaini gurasoei proposatzen diegun norabide berean aritu daitezten? Zeintzuk ezagutzen ditugu?

- Euskara ikasteko aukerei eta laguntzei buruzko informazioa: hainbat udalek banatzen diete gurasoei euskara ikasteko aukerei buruzko informazioa.
- Euskara ikasteko guraso taldeak: Adibidez, Gasteizko udalak egiten du eskaintza hori.
- Mintzataldeak: Gurasoentzako mintzataldeak antolatzen hasi dira zenbait ikastetxetan.
- Euskarazko produktuen katalogoa
- Eskola orduz kanpoko euskarazko eskaintzari buruzko informazioa: Buruntzaldeko Udalek argitaratzen duten Aisia Euskaraz gida, adibidez.
- Euskara maitea ikastaroa: Haur txikientzat jolasak eta esamoldeak euskaraz, Itsaso Arrieta irakasleak ematen ditu.
- Jolas ikastaroak: Adibidez, Urtxintxa aisialdiko eskolak eskaintzen duena.
- Esamoldeen eta hitz goxoen zerrendak: Alkarbide Bilguneak argitaratutako Ku-ku liburuxka eta CDa, adibidez.
- Abestien liburuxkak eta CDak: hainbat argitalpen daude eta hainbat ikastetxek berea ere egiten dute.
- Ipuin kontaketa tailerrak
- ...

#### 4. Haurren adinaren arabera plana zehaztea

Erabaki da sei ikasturtean zehar garatzea plan hau: Haur Hezkuntzako 2 urteko haurren gurasoengandik hasi eta Lehen Hezkuntzako bigarren maila arte. Gurasoekin ikastolak eta irakasleek duten harremana aldatu egiten da haurren adinaren arabera, eta Lehen Hezkuntzako hirugarren mailatik aurrera beste arlo batzuei lehentasuna ematea eta arlo horiek garatzeko ahalegina egitea erabaki da.

Hiru multzotan banatu dira eman nahi diren mezuak eta eskainiko diren tresnak: Haur Hezkuntzako 2 eta 3 urteko haurren gurasoak, Haur Hezkuntzako 4 eta 5 urteko haurren gurasoak eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako haurren gurasoak.

	Haur Hezkuntza 2-3 urte	Haur Hezkuntza 4-5 urte	Lehen Hezkuntza 6-7 urte
Gurasoentzako mezuak	Euskara eta gaztelania ondo menderatuko dituzten ikasleak nahi ditugu, eta, etorkizunean, eguneroko harremanetan euskararen aldeko hautua egingo dutenak. Ikastolatik ahal dugun guztia egingo dugu norabide horretan, baina mugak ditugu. Bai elebitasunera begira, baita hizkuntza jokabideetara begira, familiak eskolak baino eragin handiagoa du.		
Non kokatuko gara?	Familia barruko harremanetan kokatuko gara: familia ereduaren arabera jokatzeko moduak, aurrera egiteko moduak...	Lagunarteari begira jarriko gara: lagunarteko harremanetan eragiteko moduak, eredu izatearen garrantzia...	Eskola orduz kanpoko jarduerari eta egoerei begira jarriko gara: eskola orduz kanpoko jarduerak euskaraz izatearen garrantzia, kaleko egoeretan eredu izatearen garrantzia...
Erantzun nahi diren kezak	Euskara ondo ikasiko al dute? Gaztelania ondo ikasiko al dute? Ez dut euskaraz ondo hitz egiten, erabili behar al dut? Euskaldunak gara baina gure artean gaztelaniaz egiten dugu, zer eragin izan dezake horrek? Etxeko hizkuntza gaztelania denez, eskolara hastean ez al dute gaizki pasako irakasleek dena euskaraz	Lagunartean gaztelaniarako joera hartzen badute, zer egin? Euskara edo gaztelania gaizki erabiltzen dutenean zuzentzea ona al da? Euskara eta gaztelania nahasten badituzte zer egin?	Nola lagundu eskolako lanekin euskaraz ez baldin badakit? Egia al da eredu elebidunetan ikasten dutenek akats gehiago egiten dituztela gaztelaniaz idazterakoan? Izango al dute arazorik etorkizunean gaztelaniaz ikasi beharko balute?

	egiten badiete?		
Mezuak emateko bideak	<p>Gurasoekin kurtsoka egiten diren bilerak ikasturte hasieran.</p> <p>Gurasoekin banaka egiten diren bilerak ikasturte hasieran eta amaieran.</p> <p>Harreman informalak: haurren bila datozenean, adibidez.</p>		
Mezuak emateko erabiliko diren tresna osagarriak	<p>Hainbat esku-orri sortuko dira. Guztiek egitura bera izango dute: mezu jakin bat ematea, kezka bat argitzea eta tresna zehatz bat eskaintzea.</p> <p>Esku-orriak beti bide osagarriak izango dira, irakasleek gurasoekin duten zuzeneko harremanean lagungarri izango den tresna bat.</p>		
2009-2010 ikasturtean gurasoei eskainiko zaizkien hainbat tresna	<p>Esamoldeen zerrendak.</p> <p>Gelan erabiltzen diren abestien CDa.</p> <p>Euskarazko produktuen katalogoa.</p> <p>Euskararen jolasa: etxe barruko hizkuntza jokabideei buruzko jolasa.</p> <p>Oporretan ere euskara eskaintzeko aukerei buruzko informazioa.</p>	<p>Gelan erabiltzen diren abestien CDa.</p> <p>Jolas ikastarua.</p> <p>Euskararen jolasa: kaleko harremanetako hizkuntza-jokabideei buruzko jolasa.</p> <p>Oporretara begirako oharrak eta aholkuak.</p>	<p>Eskolako lanekin laguntzeko irizpideen dokumentua (ebete hizkuntza-zerbitzuak).</p> <p>Eskola orduz kanpoko euskarazko jardueren gida.</p>

## 5. Adibidea: 2009-2010 ikasturterako 2 eta 3 urteko haurren gurasoentzat plan zehatza

### Ikastolan lehenengo aldiz matrikulatzerakoan

Lehenengo aldiz matrikulatzen direnean, mezu nagusienak aipatu eta Euskaraz Bai\*! izeneko esku-orria banatu.

### Iraila-urrian (HH2 eta HH3 bereiziko dira)

HH2 gelaka egiten diren lehenengo bileretan			
	Mezu nagusiak gogorarazi	Kezkak argitu	Tresnak eskaini
Euskara bizi* (HH2) esku-orria banatu	Elebitasun orekatura iritsi nahi dugu. Euskararekin harreman handia eta ona behar dute Etxetik asko egin daiteke horri begira	Ama hizkuntza ezberdinetako haurrak nahasteak eragin negatiboa? Ez dute gaizki pasako orain arte guztia gaztelaniaz egin eta ikastolan dena euskaraz egiten zaienean?	Euskararekin jolasteko esamoldeak Expresiones en euskera

HH3 gelaka egiten diren lehenengo bileretan			
	Mezu nagusiak gogorarazi	Kezkak argitu	Tresnak eskaini
Euskara bizi* (HH3) esku-orria banatu	Euskararekin harreman handia eta ona behar dute Etxetik asko egin daiteke horri begira	Euskara ondo ikasiko al dute? Gaztelania ondo ikasiko al dute?	Euskararekin jolasteko esamoldeak Expresiones en euskera
Aurreko ikasturteko bideoa aurkeztu		Euskara ondo ikasiko al dute?	

\* Esku-orri eredu guztiak ia prest daude dagoeneko: errepasatu behar dira eta tresnaren bat osatu behar da. Eranskinetan, adibide moduan, "Euskararen jolasa" deituriko esku-orria jarri da.



Urria-azaroan

HH2ko guraso bakoitzarekin bilera ikasturte hasieran			
	Mezu nagusiak gogorarazi	Kezkak argitu	Tresnak eskaini
Etxeko hizkuntzari buruzko galdeketa	Elebitasun orekatura iritsi nahi dugu. Familiatik asko egin dezakezue.	Ikasturtean zehar zein erantzungo diren aipatu Kezka edo zalantzen bat baduten galdetu, momentuan erantzuteko edo lantzeko.	
Euskaraz Bai!* esku-orria (lehendik banatua dagoenez, erakutsi eta ez badute bat eman)	Familia tipologiaren arabera zer egitea gomendatzen den eta zer ez (etxeko hizkuntzari buruzko galdeketa emango digu informazio hau).		Gelako kantekin CDa eta letrak eman

HH3ko guraso bakoitzarekin bilera ikasturte hasieran			
	Mezu nagusiak gogorarazi	Kezkak argitu	Tresnak eskaini
	Familia berriren bat baldin badago, HH2ko eredu erabili.		
	Elebitasun orekatura iritsi nahi dugu. Familiatik asko egin dezakezue. Lehenengo ikasturtean zer egin genuen (zer banatu zen, erronka...) gogorarazi. Aurtengorako zer aurreikusten dugun aipatu. Iritzia galdetu. Parte hartzera (erronkan) eta tresnak erabiltzera animatu.	Ikasturtean zehar zein erantzungo diren aipatu Kezka edo zalantzen bat baduten galdetu, momentuan erantzuteko edo lantzeko.	Gelako kantekin CDa eta letrak eman

\* Esku-orri eredu guztiak ia prest daude dagoeneko: erreparatu behar dira eta tresnaren bat osatu behar da. Eranskinetan, adibide moduan, "Euskararen jolasa" deituriko esku-orria jarri da.

### Azaroan edo abenduan

HH2 eta HH3 gelaka egiten diren bileretan			
	Mezu nagusiak gogorarazi	Kezkak argitu	Tresnak eskaini
Gabonetan ere euskara oparitu* esku-orria banatu	Euskararekin harreman handia eta ona behar dute. Erreferente euskaldunak ere behar dituzte.	Gure artean gaztelaniaz egiteko ohitura dugu, zer eragin izan dezake horrek? ¿Es bueno leerles los cuentos en euskera?	Euskarazko produktuen erreferentziak.

### Otsailean-martxoan

Taldeka bilduz edo banakako harremanetan, euskararen aстера begira			
	Mezu nagusiak gogorarazi	Kezka argitu	Tresnak eskaini
Euskararen jolasa* esku-orria banatu	Familiek dute eragin gehien seme-alaben hizkuntza jarreretan eta jokabideetan, eredu izan behar dute.		Eredu izatera begira, famili ezaugarri ezberdinetara egokitutako proposamen zehatzak.

### Maiatzean-ekainean

HH2 eta HH3 gelaka egiten diren bileretan			
	Mezu nagusiak gogorarazi	Kezka argitu	Tresnak eskaini
Oporretan ere euskaraz bai!* esku-orria banatu	Elebitasun orekatura begira euskararen erabilera indartu behar da. Familietatik asko egin daiteke.	Nire euskara ez bada oso ona, erabili behar al nuke?	Oporretan euskara eskaintzeko hainbat adibide eta erreferentzia

\* Esku-orri eredu guztiak ia prest daude dagoeneko: erreparatu behar dira eta tresnaren bat osatu behar da. Eranskinetan, adibide moduan, "Euskararen jolasa" deituriko esku-orria jarri da.

## 6. Frogatzea eta egokitzea

Karmelo Ikastolan familia bidezko euskararen transmisioari buruzko plan hau 2009-2010 ikasturtean oso osorik ezarri nahi da.

Une honetan behar diren baliabide eta tresna guztiak prestatzen ari gara ebete hizkuntza-zerbitzuetako lñaki Eizmendiren laguntzaz.

Bestalde, hainbat tresna erabiltzen ere hasi gara dagoeneko: Euskaraz bai! esku-orria, Euskararen jolasa esku-orria eta dinamika, Gabonetan euskaraz oparitzeko informazioa, eta abar.

Froga hauek lantzen ari garen norabidea egokia den erakutsiko digute, eta irailaren hasierarako gurasoei begirako esku-orri eta tresna guztiak prest izango ditugu, programa osoa behar bezala abian jartzeko. Urtez urte hobetu eta garatu beharreko proiektua izango da, baina helburua da oinarriak ondo finkatuta uztea eta horren gainean hobetzen joatea. Hori bai, irakasleok gurasoekin dugun edo izan dezakegun komunikazioa izango da ardatz nagusia eta lan hori indartzeko eta errazteko izango dira esku-orri eta tresna guztiak.

## 4. Ondorioak

---

Karmelo Ikastolan argi dugu ikasleei euskaraz bizi ahal izateko tresnak eman nahi dizkiegula, eta norabide horretan familien laguntza nahi eta behar dugula.

Orrri hauetan aurkezten dizuegun plan honek norabide horretan eragin nahi du: gurasoei hainbat mezu eman, hainbat kezka argitu, proposatzen diegun norabidean aritzea erraztuko dieten tresnak eskaini...

Ez dugu baliabide ekonomiko handirik zeregin horretarako, baina bai giza baliabideak aproposak: irakasleok gurasoekin dugun harremana izango baita bide nagusia.

Helburuak xumeak dira, ikastolak eta irakasleok ezin dugu nahi adina eta nahi moduan eragin familietan. Familia bakoitzaren errealitatea eta hizkuntza-jokabideak errespetatzen ditugu, baina argi azaldu nahi diegu zein den gure norabidea eta zer nahi genukeen beraiengandik. Pauso zehatzak emanaz eta urtez urteko lanean, hainbat helburu lortuko ditugula uste dugu, ikastolarentzat, irakasleontzat, gurasoentzat eta ikasleentzat onuragarriak izango direnak.

## 5. Eranskinak: Esku-orri adibidea

---

Ondorengo orrietan esku-orri adibide bat agertzen da. Modu honetako hainbat sortzen ari gara irakasleon lanaren osagarri eta lagungarri izango direnak. Kasu honetan, euskararen astera begira gurasoei proposatuko zaien jolasa aurkezten da. Jolas hori ikastolarako asmatu dugu eta 2009ko martxoan frogatuko dugu.

## EUSKARAREN JOLASA

*Ikastolako familientzako euskararen jolasa.  
Animatu eta parte hartu!*

## JUEGO DEL EUSKERA

*El juego del euskera para las familias de la  
ikastola. ¡Anímate y participa!*

### *Zergatik proposatzen dizuegu jolas hau?*

- Euskararen astearen inguruan familiarekin zerbait berezia egin nahi genuen.
- Euskarari dagokionez ideia bat argi dugu: Etxean zer ikusi hura ikasi. Seme-alaben euskararekiko jarretan eta jokabideetan eragin gehien familiekin dute.
- Gurasoak eredu izan behar duzue seme-alabentzat. Zuetako asko gaur egun eredu egokiak zarete, baina ahalegin horretan jarraitzeak merezi duela ikusten dugu.
- **Eredu izatea gauza atsegina izan daiteke.** Bakoitza gaur egun dagoen lekutik abiatuta, primeran ere pasa dezakegu ahalegin horretan!
- Jolas honen bidez horren inguruan froga txiki bat egin nahi dugu. Ezaugarri eta ohitura ezberdinetako familiei egokitutako jolas bat proposatzen dizuegu, eta guztiok pauso txiki eta erraz batzuk emanez ondo pasatzea, eredu izatea eta euskara erabiliz ikasi gozatuz.
- Anima zaitzete eta parte hartu!

### *¿Por qué os proponemos este juego?*

- En la *Semana del euskera* queríamos hacer algo especial con las familias.
- Partimos de una idea concreta: las familias sois determinantes en las actitudes de vuestros hijos e hijas hacia los idiomas.
- Tenemos que conseguir que nuestros hijos e hijas tengan una buena relación con el euskera. Y desde casa podemos ayudarles aunque no sepamos euskera.
- **Ese esfuerzo puede ser muy ameno e incluso divertido.**
- Con este juego pretendemos hacer una pequeña prueba con ese objetivo. Os proponemos un juego adaptado a las diferentes realidades lingüísticas de las familias. Mediante sencillos y fáciles retos, podéis transmitir actitudes positivas hacia el euskera, y a la vez que aprendéis disfrutáis.
- ¿Dispuest@s a participar?

### Jolasaren oinarriak

- Jolas hau **martxoaren 25ean** hasiko da eta euskararen astean amaituko da.
- Ondorengo orrietan erronka txiki batzuk proposatzen dizkizuegu. Erronkak lortzen badituzue puntuak jasoko dituzue.
- Familia bakoitzeko emango ditugu puntuak, baina ahalegina denon artean ospatuko da.
- Parte hartzea aukerakoa da, zenbat eta familia gehiagok parte hartu orduan eta hobeto.
- Aukeratu zuen multzoa, orria bete koloretako pegatinekin eta  **datorren apirilaren 1 ean ikastolara ekarri.**
- Animo eta parte hartu!

### Bases del juego

- El juego **comenzará el 25 de marzo** y terminará en la semana del euskera.
- Os propondremos pequeños retos y podréis ir acumulando puntos.
- Los puntos se repartirán por familia, el esfuerzo realizado lo celebraremos todos conjuntamente.
- Participar es optativo, cuantos más participéis, mejor. ¡Animaros y participar!
- Para participar rellenar el cuadro con las pegatinas y **entregarla en la ikastola el 1 de abril.**
- ¡Os animamos a participar!

### SARIAK


### PREMIOS

Gelako familia guztien partehartzea baloratuko da denon artean ahalegin hau ospatuz. Saria gela guztiarentzat izango da: parte hartzen duten zein ez dutenentzat.

*Se valorara el esfuerzo realizado por las familias mediante una celebración. El premio será para toda la clase, tanto para los que participan como para los que no.*

**Denontzat (Para tod@s):**

**Meriendatxo bat**



## Si no sabéis euskera o sabéis muy poco

Os animamos a que utilicéis cada vez más expresiones en euskera. No os supondrá mucho esfuerzo, y además de transmitir una buena relación hacia el euskera, podéis pasarlo muy bien.

A continuación os proponemos una lista de frases en euskera. Elegir unas pocas frases y empezar a utilizarlas en euskera. El reto es este: os daremos una pegatina por cada día que consigáis utilizar las frases elegidas, siempre en euskera durante el tiempo que dure el juego. Empezar por dos o tres y si veis que lo conseguís con facilidad incorporar otras dos o tres. ¿Cuántas pegatinas seréis capaces de conseguir?

Nota:

- Es importante que los/las niños/as participen en el juego: que vean el esfuerzo que hacemos, que lo vean como algo divertido, que colaboren poniendo la pegatina,...

**Expresiones que os proponemos** (marcar las que elijáis):

<b>Egunon! zelan egin duzu lo?</b>	Buenos días! ¿Qué tal has dormido?	<b>Laztana, joango gara paseatzera?</b>	Cariño, ¿vamos a la calle?
<b>Esan agur!</b>	Diles adiós!	<b>Jango duzu bokadiloa?</b>	¿Te comes el bocadillo?
<b>Bihar arte!</b>	Hasta mañana!	<b>Egingo dugu futbolea?</b>	¿Jugamos al fútbol?
<b>Gabon! Ondo lo egin laztana!</b>	Buenas noches y que duermas bien cariño!	<b>Harrapaketan ibiliko gara?</b>	¿Jugamos a pillar?
<b>Egongo zara geld!</b>	¿Pararas quieto-a?	<b>Ondo pasa duzu ikastolan?</b>	¿Lo has pasado bien en la ikastola?
<b>Goazen lotara!</b>	Vamos a dormir!	<b>Marrazki bat egingo dugu?</b>	¿Pintamos un dibujo?
<b>Bai gozoa! Ze gozoa!</b>	¿Qué rico!	<b>Emaidazu mosutxo bat!</b>	¿Me das un besito?
<b>Norekin jolastu duzu?</b>	¿Con quien has jugado?	<b>Zatoz hona polit hori!</b>	¡Ven aquí mi vida!

## Si uno de vosotros sabe euskera y el otro no

Podéis participar en uno o en dos niveles. Las opciones son:

- El / la que sabe euskera participa en el nivel de los que hablan euskera.
- El/ la que no sabe euskera participa en el nivel de los que no saben euskera.
- L@s dos participáis en el nivel de l@s que no saben euskera.

Nosotr@s os proponemos que cada uno de vosotr@s participéis en un nivel, pero podéis elegir.



## Guraso euskaldunak bazarete eta etxean guztia euskaraz egiten baduzue

Ez al daude gaztelaniaz erabiltzen dituzuen esamolde batzuk? Egoera informaletako esamoldeak, harridura edo haserrea adieraztekoak...edo euskaraz txarto erabiltzen ditugunak? Ziur baietz! Zerrendatu esamolde horiek edo aukeratu guk proposatutako bi edo hiru, modu zuzenean erabiltzen hasi. Aldaketa erraz egin duzuela ikusten baduzue, beste bi edo hiru aukeratu.

Esamoldeak zuzen erabiltzen duzuen egunean pegatina laukitxoan jarri dezakezue. Animo eta euskara erabiliz gozatu!

### Oharrak:

- Seme-alabek ere parte hartu dezatela jolasean: guztien artean aukeratu esamoldeak, beraiek ere erabiltzen hasi daitezela... Ikusi dezatela zein den gure ahalegina eta horretan ondo pasatzen dugula, pegatinak beraiek jar ditzatela,...

-

### Esamolde batzu:

- ♦ ¡Ya te vale!     ¡ Si hombre!
- ♦ ¡Qué pasada!
- ♦ A que bai!
- ♦ Sí, más

### Eredu zuzenak:

- Nahiko da!     Bai zera!
- Hau bai hau!     Zer da hau!
- Baietz!
- Beste berrik!

## Guraso euskaldunak bazarete baina etxean ez baduzue guztia euskaraz egiten

Animatzen al zarete euskaraz gehiago egitera? Aukeratu gaztelaniaz diren egoera bat edo bi. Familia osoa biltzen zareten tarteak izan behar dute. Adibidez: afaltzera esertzen garenean lehenengo bost minutuak, guztiok kotxean goazenean gertuko lekuren batera, etxeko lanak egiten ari garenean... Benetan lortu dezakezuela ikusten duzuen tarte bat edo bi aukeratu (berdin da oso laburrak badira ere). Eta saiatu horretan jokoak irauten duen denboran. Seguru ondo pasako duzuela!

Tarte hoiek euskaraz izatea lortzen duzunean pegatina bat ipintzeko aukera izango duzue . Animo eta ekin gogoz.

### Oharrak:

- Seme-alabek parte hartu dezatela jolasean: jakin dezatela zein den jolasa eta parte hartu dezatela ahaleginean eta pegatinak jartzen.



---

Karmelo Ikastola  
Menendez Pelayo 12-14 48006 Bilbo  
T\_ (+34) 944333001  
[014510aa@hezkuntza.net](mailto:014510aa@hezkuntza.net)

*ebete hizkuntza-zerbitzuak*  
Beko kale bidea 4 20160 Lasarte-Oria  
T\_ 660245539  
[info@ebete.org](mailto:info@ebete.org) · [www.ebete.org](http://www.ebete.org)

Udaltop lan-topaketa batzuk izan nahi dute. Helburu hori lortzen laguntzeko, ponentziak eskura jarri dira topaketak egin aurretik, nahikoa denbora izan dezan teknikari bakoitzak irakurtzeko, lantzeko eta hizlariari egingo lizkiokeen galderak prestatzeko. Jardunaldietan bertan, jadanik irakurriak egongo diren hitzaldiei adina tarte eman nahi zaie elkarriketarako eta hausnarketarako tarteei.

Idatzi hemen zure galdera (ez ahaztu web gunetik bideratu behar duzula).

Galdera:

Azalpena: